

Elgoibar - 1313. zenb.  
XXXI. urtea - 2024-01-19



TOKIKOM

BARREN



# Jazzaren esentzia Mendaron

Malwina Masternak

Fernando Marcos

# SANSON AROTZTEGIA

NEURRIRA EGINIKO  
ALTZARIAK



EGURREZKO  
LURRAK



ESKAILERAK ETA  
BARANDILA



TEILATU, ATARIPE  
ETA PERGOLAK



MOTA GUZTIETAKO  
EGURREZKO ATEAK



Egur lan mota guztiak zure neurria



Esperientzia  
handiko langileak



Kalitate guztieta-  
ko egurrekin egiten  
dugu lan



Neurrira eginiko  
egurrezko proiektuak



Eskatu aurrekontua  
inongo konpromisorik gabe

JOSEBA IRIONDO - 619 793 653 - [sanson.aroztegia@gmail.com](mailto:sanson.aroztegia@gmail.com)

Argitaratzailea:



Maialen Sanchez

Idazlea

## Igogailuetan



***"Igogailuari esker,  
auzoko lagun asko  
ezagutu ditut,  
zain egon naizenetan  
haiekin hitz egiteko  
aukera izan dudalako"***

Babeslea: Laguntzaileak:



**O**rain dela gutxi, irisgarritasun planean jasotakoari jarraituz, igogailu berriak eraiki dituzte gure auzoan. Obrek ia bi urte iraun dute, eta bizilagun batzuek pribatutasuna galdu duten arren, obra erabilgarria gertatu da. Proiektua amaitu eta gero, ez dago oztoporik auzoaren lehenengo mailara igotzeko, eta hori eskertzekoa da.

Igogailuari esker, auzoko lagun asko ezagutu ditut, zain egon naizenetan haiekin hitz egiteko aukera izan dudalako. Normala denez, hitz-truke horietan ez dugu gai eztabaidagarrietan sakondu nahi izaten eta era honetako elkarrizketa sinpleak izaten ditugu: Zer eguraldi dugu gaur?; euri asko egiten duela dirudi; gaur bero handia egiten du. Segundo gutxi batzuk besterik ez dira izaten igogailuan igotzeko, baina hitz egitean duen jarrera ikustea nahikoa izaten da pertsona bat zelakoa den susmatzeko.

Gutxi gara eskaileretatik igotzea nahiago dugunak; osasungarria den arren, eskailerak erabiliagoak izaten dira Eguberrietan edo *bikini operazioa* hasten dugunean. Batzuetan, hobe da urte osoan ariketa pixka bat egitea, puntako orduan sortzen diren ilaren zain egotea baino. Oso elementu ona da mugikortasunerako, baina pena handia ematen dit ikusteak gizakia gero eta ahulagoa eta lausoagoa dela. Antropologiaz baliatuz, eta nik neuk atarekin sudurrean jo ondoren, igogailua erabiltzen duten pertsonak bi taldetan banatu ditut: alde batetik, bidaia ahalik eta gehien aprobetxatzeko atea eusten dizutenak daude, eta, bestetik, bizkarra eman eta ikusi ez zaituzten planta egiten dutenak, igogailuan bakarrik igotzeko. Nire leihotik igartzen dut zein taldekoak diren igogailuaren zain egoten direnak. Zorionez, nire auzotar gehienak besteak agurtzen eta besteen zain gelditzen direnetakoak dira. Norberak bere bakardadean jarraitu nahi badu, hobe igogailurik ez hartzea eta eskailerak erabiltzea; elektrizitatea aurretuko duzu eta bihotzak eskertuko dizu.

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)

*BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus*

-----

injustizia hau salatu, palestinarrei elkartasuna eta maitasuna adierazi eta ozen oihukatu gerrarik ez dugula nahi inon!

A.I.

### Hiru minutuero misil bat lehertzen da Gazan

Gazako Gobernuaren Komunikazio Bulegoak jakinarazi du Israelgo Armadak 65.000 tona lehergai jaurti dituela urriaren 7tik. Hainbat adituk esandakoaren arabera, Hiroshimako hiru bonba adinako ahalmena da hori. Datu zehatzagoak ere argitaratu dira: Israelek 89 egunetan 65 kilotoi lehergai jaurti ditu Gaza suntsitzeko, eta 45.000 bonba bota ditu; hiru minutuero misil bat lehertzen da Gazan, batez beste. Misil horien bi herenak inolako gidaririk gabe bota dituztela jakinarazi dute; hau da, helburu argirik gabe. Logikaz, horrelako misilekin errazagoa da zibilak izatea kaltetuenak. Sarraski galanta!

Israelen bonbek ez dute lurra, ura eta airea pozoitzen Hiroshima eta Nagasakiko bonba atomikoek bezala, baina behin eta berriz esaten ari dira toxikoak direla. Frogatuta geratu da debekatuta dauden bederatzi obus mota erabili dituela Israelek, baita fosforo zuria ere. Horren ondorioz sustantzia toxikoak eta erradiazioa zabaldu dute Gazan.

Guzti hau gertatzen ari da, oraintxe bertan, lerro hauek irakurtzen ari zaren unean. Israel bereizketarik gabe eta justifikaziorik gabe ari da sarraskia eragiten. Nazioarteko zuzenbidearen eta nazioarteko hainbat hitzarmenen urraketa argia da.

Eta egoera honen aurrean herritarrok zer egin dezakegun galdetzen dugu. Inguruan dauden deialdietan parte hartzen jarraitu, kalera irten eta

### BARREneko harpidedunentzako oharra

**Buzoiko B pegatina falta bazaizu edo hondatuta baduzu, BARREn bulegora etorri eta berria emango dizugu. Banaketa sistema errazteko behar-beharrezkoa dugu zuen buzoiak pegatinarekin markatzea. Mesedez, ez ezazue pegatina kendu buzoitik. Gure banatzaileek eskertuko dute.**





Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)



943 744 112





688 655 658



### **Txakur-kaka dendako atarira bota diote Azkue argazki dendari:**

"Astelehen goizean lanera iritsi nintzenean txakur-kakaz beteriko poltsa topatu nuen dendako atarian. Pertsiana barrura botata zegoen poltsa! Lotsagarria! Lehenago ere bizi izan ditut antzerako egoerak. Landare barruan utzi zidaten behin txakur-kaka, baina oraingoa gehiegizkoa irudituz zait. Horrela dabilen txakur-jabeak hobe du txakurrik ez edukitzea".



### **Autoko logotipoa ostu didate:**

"San Roken neukan aparkatuta kotxea, eta logotipoko irudia lapurtu didate. Adi ibili han inguruan aparkatzen duzuenok. Niri Peugeot markako lehoia kendu didate. Miserablea izan behar da hori egiteko!"



### **Kiroldegira joaten den jende askoren jarrera ez da egokia:**

"Arratsaldero-arratsaldero kiroldegiko erabiltzaileek egiten dituztenak ikustea lotsagarria iruditzen zait. Hainbat herritarrek errepidearen erdian uzten dute autoa, haurrak kiroldegira eramane eta aldatzeko,

irteten direnerako zain egoteko... Eta horrek arriskua sortzen du. Astelehen arratsaldean, esaterako, bi kotxe parez pare geratu ziren, bi aldeetara auto ilarak sortuz. Ondorioz, oinezkook erdi ilunetan ibili behar izan genuen zebraidea gurutzatzen. Oso arriskutsua da".



### **Txalo bat merkataritza txikiari, Gabonetan erakuslehierei behar duten mimo eta dedikazioa eskaintzeagatik:**

"Pozgarria da herrian lana mimoz eta ilusioz egiten duen jendea dagoela ikustea. Plazera izan da horrelako eskaparate landuak eta finak ikustea. Bejondeizuela! Asketa erreformak komertzioa bera eta erakuslehiak apaindu dituzten artistak txalotu nahiko nituzke, esaterako. Txalo bat komertzioari berari, enpresaren irudiari behar duen garrantzia emateagatik, eta eskaparatea apaindu dutenei, berriz, erakutsitako profesionaltasunagatik eta egindako lan bikainagatik. Gora komertzio txikia!"



## Adimen emozionalari buruzko ikastaroa, Elgoibarren, hilaren 24an



Emozioen kudeaketa sustatzea eta autoezagutza lantzea dira *Adimen emozionala*: zer sentitzen dudan izeneko ikastaroaren helburuak. 18 eta 30 urte bitarteko gazteentzako antolatu dute Elgoibarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, *Treba Gazteak* ekimenaren barruan. Urtarrilaren 24an izango da ikastaroa, Kultur Etxeko hitzaldi-gelan, 17:30etik 19:30era, debalde, eta Emokik gidatuta. Ongizate integrala sustatzen egiten dute lan Emokik.

Izena eman nahi duten lagunek [www.labur.eus/U24](http://www.labur.eus/U24) estekaren bidez, 943 741 050 telefono-zenbakira deituta, [gazteria@elgoibar.eus](mailto:gazteria@elgoibar.eus) helbidera idatzita edo kartelaren QR kodea eskaneatuta eman dezakete.

### Urteko batzar nagusia, Elgoibarko Jubilatuen Biltokian

Elgoibarko Jubilatuen Biltokian bazkideen urteko batzar nagusia egingo dute urtarrilaren 24an. 17:00etan izango da, egoitzan bertan. Zuzendaritza berriaren lehenengo batzarra izango da.

### Hemen bertako 300 arbola-landare sartu dituzte Elgoibarren



Baso autoktonoak berreskuratzeko, hemen bertako arbola-landareak sartu zituzten zapatuan Elgoibarren, Elgoibarko Baso Biziak elkarteak eta Lurguia fundazioaren ekimenez. Hamabost bat lagunek parte hartu zuten landaketan, eta 300 arbola inguru landatu zituzten. Antolatzailerek eskerrak eman dizkiete landaketan parte hartu zuten lagunei, lurjabeek, material guztia traktorean igo zien lagunari eta landaketarako tresnak oparitu zizkien Bellota Europe enpresari.

### Urtarrilaren 28an egingo du urteko batzarra Sendi Anaitasunak Mendaron

Sendi Anaitasuna elkarteak urtarrilaren 28an egingo du urteko batzarra Azpilgoetako elizan, 11:30ean. Kudeatzaileek jakinarazi dute banan-banan irakurriko dituztela bazkideen izenak, eta batzarrean ez dagoen zerrendakideak 10 euroko isuna ordaindu beharko duela. Heriotzaren nahigabea arintzeko sortu zuten Mendaron Sendi Anaitasuna elkarte eta 700dik gora bazkide ditu gaur egun. Elkarteko bazkideen heriotza-gastuak bere gain hartzen ditu elkarteak.

## 38 milioi eurotik gora inbertituko ditu Elgoibarko Udalak 2027ra arte Legegintzaldi Planaren baitan

Legegintzaldi Planean 91 ekintza jaso dituzte, hamar helburutan eta sei ildo estrategikotan banatuta, 2023tik 2027ra bitartean gauzatzeko, eta guztira, 38 milioi euro inguru inbertituko ditu Elgoibarko Udalak. Legegintzaldi Plana etxe guztietan banatu dute, eta joan zen astean aurkeztu zuten Jubilatuen biltokian, jende aurrean. Baina beste bi aurkezpen egitea dute aurreikusita: urtarrilaren 24an eta 31n, 19:00etan, Aita Agirreko areto nagusian. Bilera horietara herritar guztiak daude gonbidatuta, herritarren kezkei erantzun eta haien ekarpenak biltzeko antolatu dituztelako.

Sei ardatz estrategiko jaso dituzte planean, eta bakoitzari diru kopuru bat esleitu lau urterako. Elgoibar "herri bizixa", "nortasun propio eta euskalduna duen" herria egiteko, 4.092.000 euroko inbertsioa egitea aurreikusten dute, besteak beste industria sustatzen, merkataritza dinamizatzen, eta kirola, kultura, boluntzaritza eta ekintzailtza bultzatzen. Elgoibar herri "abekigorragea" egin eta "zainketen gizarte baten alde egiteko", 22.495.000 euroko inbertsioa egingo dute, eta herri "inklusiboagoa eta atseginoagoa" egiteko erabiliko dituzte beste



3.863.503 euro. Landa-inguruak zaintzeko, ur-horniduraren sarea handitzeko eta Elgoibar-Km0 sustatzeko, berriz, 1.797.000 euroko inbertsioa egitea aurreikusi dute, eta Elgoibarko ingurumen-plana diseinatzeko eta garatzeko, aparkaleku berriak sortzeko eta herriko espazioak birgaitzeko, 5.212.656 euroko inbertsioa egingo dute. Azkenik, *beti gertu, zure ondoan* lelopean, 559.000 euroko inbertsioa egingo dute "gizartee-eragileekin lankidetzan aritzeko eta gobernu onaren ereduaren arabera kudeatzeko".

### Egoitzetanaldi baterako egonaldiak egiteko epea zabaldu dute adinekoentzat

Mendekotasuna duten adinekoentzako egoitzetanaldi baterako egonaldiak egiteko epea zabaldu du Elgoibarko Udalak Aste Santurako. Etxeetan bizi diren adineko mendeko pertsonei edota desgaitasunen bat dutenei zuzenduta dago kanpaina, eta Aste Santuko egonaldiak martxoaren 25etik apirilaren 8ra egingo dira. Interesa duenak otsailaren 16ra arteko epea dauka eskaerak egiteko. Eskaerak Gizarte Ongizate Sailean izapidetu behar dira (Santa Ana kalea, 2). Horretarako, aurrez aurreko hitzordua eskatu beharko da Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ), aurrez aurre, nahiz 943 741 050 telefono zenbakira deituta. Egonaldia hasi baino hamabost egun aurretik jakinaraziko diete gero eskaera egin dutenei onartu dituzten edo ez.

### Interneten dago Elgoibarko Izarraren Eguberrietako bertso saioa

Joan zen asteko *Hitzetik Hortzera* saioan aurreratu zituzten Elgoibarko Izarraren Eguberrietako bertso-jaialdiko bertso aukeratu batzuk, baina Interneten ere entzun ditzakezue [BARREN.EUS](http://BARREN.EUS) webgunean sartuta. Abenduaren 28an izan zen bertso-saioa eta Elgoibarko Izarrak keinu berezia egin zion Haritz Euskal Dantzari Taldearen 50. urtemugari. Dantza eta bertsoa uztartzeko ariketa berritzailea proposatu zuen Maite Berriozabal gai-jartzaileak, eta hala, Oihana Iguaran bertsoan ari zen bitartean dantzan egin zuen Haritz dantza taldeko Iera Larrañagak. Era berean, Elgoibarko bertso eskolakoak ere parte hartu zuten jaialdian, bertsolarietako puntu bana emanez. Eta bideo guztiak [BARREN.EUS](http://BARREN.EUS)-en daukazue ikusgai.

# San Anton Egunak eman du berea

Argazki gehiago: [barren.eus](http://barren.eus)





## MALWINA MASTERNAK

Jazz abeslaria

✍️ Ainara Argoitia 🎤 Fernando Marcos

Jazzean eta musika garaikidean espezializatutako abeslari, konpositore eta hezitzailea da Malwina Masternak (Ostrowiec Świętokrzyski, Polonia) eta hilaren 26an kontzertua emango du Mendaroko San Agustin kulturgunean, 20:00etan, III. Jazz Egunaren barruan. Uztargi tabernak eta Galle-tiak gozotegiak antolatu dute kontzertua, Gararock taldearen laguntzarekin, eta Miguel Rodriguez (pianoa), Joan Terol (bateria) eta Javier Callen (kontrabaxua) musikariekin batera arituko da. Lotura berezia du Masternakek Mendarorekin, pandemia garaian etorri zirelako bizitzera Iñigo Ruiz de Gordejuela bikotekidea eta biak, Bostondik (AEB). Ibilbide oparoko musikaria da Ruiz de Gordejuela ere, sortzez mendararra, sehaskatik bertatik musika arnastu duena etxean. Mendaron musika eskola sortzeko lantaldean aritu zen haren ama Marta Agirre, eta haren aitari, Julio Ruiz de Gordejuelari, zor dio Amejutz izena. Kontzerturako sarrerak Uztargin erosi daitezke 8 euroan, edo egunean bertan sarreran 10 euroan.



## ■ ■ *Gertuko kontzertua egingo dugu Mendaron, entzule guztientzat pentsatua* ■ ■

**6 urterekin ekin zenion pianoa ikasteari eta 12 urterekin hasi zenituen kantu eskolak. Musika klasikoa ikasten hasi zinen, baina luze gabe pasatu zinen jazzera. Zer du jazzak hain adin goiztiarretan erakarri zintuen moduan erakartzeko? Zuen etxean zer garrantzi izan du musikak?**

Jazza askatasunaren hizkuntza da, munduan zehar musikari askok hitz egiten duguna, eta mugetatik haratago konektatzen gaituena. Inprobisatzeko behar hori sentitzen nuen nik neuk umetatik, eta nire etxean, nahiz eta musikari profesionalak ez izan, musika beti egon da oso presente. Ella Fitzgerald-en Live in Berlin diskarekin maiteminduta hartu nuen jazzerako bidea.

**Nerabe zinela, Poloniako telebista saio batean parte hartu zenuen, eta berehala hasi zinen nazioarteko lehiaketetan sariak pilatzen. Ugaritzen ari dira artista berrien bila ibiltzen diren telebista saioak. Zer izan zen zuretzat hura?**

Poloniako *The Voice* eta antzeko telebista saioetan ibili nintzen, bai. Alde positiboak badituen arren, presio handiko giroa sortzen da saio horietan, nerabe baten arlo psikologikoarentzat batez ere. YouTube moduko sare sozialetan norberari buruzko ehundaka komentario irakurtzeak ez dio inori onik egiten. Baina hein berean, esperientzia ona ere izan zen, musikariak ezagutu eta musikaren industriak nola funtzionatzen duen ezagutzeko bidea eman zidalako.

**Berklee College of Music entzutetsurako beka lortu eta Poloniatik AEBetarako bidea hartu zenuen gero. Zer nolako esperientzia izan zen hura zuretzat? Zer ate zabaldu zizkizun?**

Berkleen mundu osoko musikariek in batera ikasi nuen, eta esperientzia hori beti da aberasgarria, ziurtzat dituzun gauzak edo norbere kulturaren aldaezinak diren ideiak alderatzera behartzen zaituelako. Musikalki ere oso aberasgarria izan zen influentziak edo eraginak, eta lagun eta proiektu berriak etengabe gertatzen zirelako.

**Bostonen, Women in Jazz Collective taldea ere sortu zenuen [Emakumeak Jazzaren kolektiboan]. Zeren beharra sumatuta sortu zenuten taldea? Nola ikusten duzu emakume musikarien eszena?**

Emakumeok zein gizonen rol espezifikoak izan dituzte musika taldeen barnean historikoki, arrazoi ezberdinengatik. Women in Jazz Collective sortu nuenean elkarrizketa hori ireki nahi izan nuen Berkleeen ikaslearen artean, emakume musikariok gure rolaren eta balioaren kontzientzia izateko. Zorionez, nik askatasun osoa izan dut umetatik nire gustuko instrumentua aukeratu eta nire bizitzaren norabidea hartzeko. Zailtasunak, nire ustez, musikaren merkatuak eta bizimoduak ezartzen ditu, ez generoen arteko borroka delako horrek. Batzuetan aukera berdintasuna emaitza berdintasunarekin nahasteko arriskua dago.

**Estatu Batuetan, Kanadan, Txinan, Europan eta Hego Amerikan... aritu zara. Jaialdi entzutetsuetako karteletan ikusi zaitugu. Zer da zuretzat musika, ogibide izateaz gain?**

Bostonetik bueltan Mendaron finkatu ginen pandemia garaian, eta musika edonon egin daitekeenez eta entzule guztientzat denez, aukera dudan guztietan kantatzen dut, han edo hemen. Musika bizimodu bat da, nire bizitzaren alderdi guztietan presente dagoena. Entzuleekin hori elkarbanatzea ezinbestekoa iruditzen zait.

**Kantagintzan zeinen eragina jaso duzula esango zenuke?**

Jazz tradizionalen Ella Fitzgerald, Sarah Vaughan, Betty Carter eta Mel Torme, gehien bat. Eta garaikidean Kurt Elling izan da nire influentzia handiena.

*"Uste dut lan handia dagoela egiteko musika irakaskuntzan oraindik, musikaren errekonozimenduan eta baita irakaslearen eta curriculumaren prestakuntzan ere"*

**Beste hiru musikari handirekin batera zator Mendarora. Zer dakarzu? Zer dira zuretzat zirkuito handietatik aparte antolatzen dituzten kontzertu hauek, are gehiago kontuan hartuta jazzaren udarako bakarrik programatzen dela inguruotan sarri?**

Gertuko kontzertu bat egingo dugu Mendaron, entzule guztientzat pentsatua, eta denok disfrutatzeko modukoa. Gehien bat Jazz estandarrek eta Broadwayeko abestiak egingo ditugu, musikari izugarrien laguntzarekin. Mendaron aritzea oso berezia da, etxean bezala eta jende ezagunarentzat kantatzea beti delako pribilegio bat. Mendaroko zein inguruko herrietako jendea gonbidatu nahi dut kontzertura; ederki pasatuko dugu. Animatu!

**Irakasle aritzen zara eta nazioartean ere hainbat master-class eman dituzu. Musika hezitzaile zaren neurrian, nola uste duzu irakasten dela gaur egun musika?**

Niretzat irakastea abestea bezain garrantzitsua da, musikarako zaletasuna ume-umetatik jorratu behar baita, eta ezagutzak entzumena pizten baitu. Uste dut lan handia dagoela egiteko musika irakaskuntzan oraindik, musikaren errekonozimenduan eta baita irakaslearen zein curriculumaren prestakuntzan ere. Musika ikasteak ikaslearen bizitzaren arlo askotan du eragina eta onura, musikako klaseetatik haratago.

**Irakurria dizuegu ideia eta influentzia berriak ez daudela beti leku berean eta alde batetik bestera ibiltzera ohituak zaudetela. Zer eman eta zer kendu dizu musikari profesional izateak?**

Alde positiboen artean, etengabe aldatzen, garatzen eta ideia berrietan murgilduta egotea aipatuko nuke. Leku berriak eta jende berria ezagutzeko aukera ugari ematen dizkigu

musikak. Bestalde, badaude alde txarrak ere. Egonkortasunik ez daukagu batere, eta oholtzara igotzen garen bakoitzean gure burua agerian jartzen dugu, kritikak jasotzeko prest.

**Madriren bizi zara egun. Zer aukera zabaldu dizkizu Madrilek? Zer darabilzu esku artean egun, eta zer besterekin amesten duzu?**

**IÑIGO RUIZ DE GORDEJUELA**, musikaria

**Zeintzuk ezaugarri nabarmenduko zenituzke Malwina Masternak artistaz?**

Malwinak, ahots paregabe bat izateaz gain, jazz-aren ezagutza handia dauka, inprobisatzeko gaitasun ikusgarria, eta lider gisa, izugarri ondo moldatzen da.

**Musikari familia bateko kide zara. Zuen ama, Marta Agirre, Mendaron musika eskola sortzeko lehen pausoak eman zituztenen taldean ibili zen, eta Unai eta Olatz zure bi anai-arreba gazteak itzal handiko musikariak dira. Zer izan da zuen etxean musika? Eta nola baloratzen duzu umetan jasotakoa?**


Umetan, ikastolara joan baino lehen, bakoitzak bere instrumentua ikasi behar izaten genuen etxean. Oporretara ere kotxean teklatura, cello-a eta biolina hartuta joaten ginen beti. Halaxe ibiltzen ginen beti honahara. Musikan disziplina hori ezinbestekoa da, eta asko eskertzen diot hori gure amari, nahiz eta umetan hori ulertzea zailagoa den. Zaletasuna eta pasioa, lanik gabe, ez dira ezer.

**Etxeaz gainera atzerria ere ezagutu duenak beti du ikuspegi osoago bat, eta zer dugu eta zer falta dugu Euskal Herrian musikan bidea egin nahi dutenentzat? Nola uste duzu baloratzen dugula kultura oro har?**

Mundu zabalean Euskal Herria leku txikia izanik, gure txikitasunean gehiegi sakontze horrek mundura ixten gaituela uste dut kasu askotan. Enpresa munduan, teknologian eta industrian Euskal Herria oso kompetitiboa da mundu mailan; musikan eta kulturaren ez, ordea. Kultura folkloreakin nahasten dugu askotan, eta ez dira gauza bera, biak ezinbestekoak izan arren.

Madril, hiri handia izanik, aukera ugari daude nire lan arloan, eta ongietorria sentitu naiz hasieratik etorkin gisa ere. Proiektu askotan murgilduta nago, abesbatzak, musikalak, nire taldea eta vocal coach bezala ematen ditudan klaseak. Proiektu guzti hauei jarraipena ematea da nire ametsa, eta musikaz eta musikarekin bizitzen jarraitzea.



 Berriketan

**Jo, konposatu, inprobisatu, irakatsi... denetarik egiten duzu. Zertan sentitzen zara erosoago?**

Jotzen eta konposatzen sentitzen naiz nire saltsan. Momentuan sortzearen zirrara gustatzen zait, eta beste musikariek zein entzuleekin une horiek elkarbanatzea ere bai.

**Hiru disko daukazu zeu buru zarela, beste bat Move taldearekin eta talde horrekin berarekin bigarren bat grabatzen ari zarete: 'Momentum'. Zer duzu aurreratzeko?**

Hala da, Move taldearekin diska berria aterako dugu martxoan. Aurten Plataforma Jazz España eta SGAEko katalogoan sartu gara, estatuko proiektu onenekin batera. Disko berezia izango da, eta Mendaron kontzertua egingo dugu uztailaren 18an. Han ikusiko dugu elkar! ■

## ELI GUTIERREZ

Txirrindulari ohia

✍️ Ainhoa Andonegi 📍 Asier Orbea / Eli Gutierrez



80ko hamarkadan hasi zen Eli Gutierrez (Elgoibar, 1971) txirrindularitzan, 12 urte zituela. Emakumezkoen txirrindularitzan aitzindaria izan zen Elgoibarren, eta Lagun Taldea txirrindulari eskolaren emakumezkoen lehen taldeko kidea izan zen. Hamar urtean aritu zen, gaixotasun batek bizikleta lagatzera behartu zuen arte. Txirrindulari ibilbidean 80 bat trofeo inguru irabazi zituen, eta Espainiako selekzioarekin munduko txapelketa ere jokatu zuen Bergamon (Italia). 2023ko Kirol Sarietan jaso zuen errekonozimendu publikoa.

*“Nire bizitzako urterik onenetarikoak izan ziren txirrindularitzan ibilitakoak”*

### Nola hasi zinen txirrindularitzan?

Lagun Taldea txirrindulari taldeko kideak eskolara etorri ziren talderako jende bila, eta nik parte hartu nahi nuela esan nien. Nire aitak ezetz esaten zidan, ez zitzaion batera gustatu ideia hura, eta ez zidan uzten. Garai hartan kirola gizonekoentzat zen, baina ni oso burugogorra naiz eta tematu nintzen. Baimen agiria sinatu behar zuen aitak eta engainatu egin nuen. Azterketa bat jarri nion agiriaren gainean, eta aitak uste zuen eskolako agiria sinatzen ari zela. Jakin zuenean baimena sinatu zuela, nire neba nagusiari esan zion berak ere eman beharko zuela izena, ez zuelako nahi ni bakarrik ibiltzea bizikletan. Nire neba gizarajoa! Sekula ez da kirolaria izan, ez zitzaion bizikletan ibiltzea gustatzen eta nigatik kilometro pila bat egin behar izan zituen. Lasterketetan ez zuen ondo pasatzen, ezinean ibiltzen zen, baina aitak baldintza hori jarri zuenez, nigatik eman zuen izena berak ere.

### Entrenatzen hasi eta berehala hasi zinen lehiatzen, eta lasterketak irabazten.

Bai, 1982an hasi nintzen txirrindularitzan, eta emaitza onak lortzen nituen. 1984an bigarren egin nuen Gipuzkoako txapelketan, eta 1985ean, 86an eta 87an Gipuzkoako txapelduna izan

nintzen. 87an, gainera, Elgoibarren jokatu zen txapelketa. Ordurako hainbat lasterketa irabazita nituen, eta txapelketa nagusia Elgoibarren egitea lortu zuen Lagun Taldeak. Oso polita izan zen garaipena herrian bertan eskuratzea. Urte horretan, 87an, Lagun Taldeak emakumezkoen taldea osatzea lortu zuen. Orbea eta beste talderen batek bakarrik zeuzkaten emakumezkoen taldeak, eta Elgoibarko txirrindulari taldearentzat lorpen handia izan zen. Ez ginen asko taldean, eta Elgoibarko bakarra neu nintzen. Emakume gutxi genbiltzan txirrindularitzan garai hartan. Gipuzkoako txapelketaren ondoren, Bizkaiko jokatu zen, eta hura ere irabazi nuen. Sopelanan jokatu genuen, eta ordurako Joane Somarriba hasia zegoen izena hartzen, baina egun hartan nik irabazi nion. Gerora lorpen handiak eskuratu ditu Somarribak txirrindularitzan, baina egun hartan bigarren postuan geratu zen, nire atzetik.

### Garaipen horiek zabaldu zituzten Espainiako selekziorako atea, eta munduko txapelketan hartu zenuen parte, Italian.

Bai, Espainiako selekziotik deitu zidaten, eta Joane Somarriba ez zuten konbokatu. Nola diren gauzak! Euskal Herritik neu bakarrik joan nintzen. Madrilgo beste neska bat zegoen taldean,

Valentziako bi eta Leongo bat, eta neuk bakarrik amaitu nuen lasterketa, eta hori jausi egin nintzela. Milanen hartu genuen ostatu eta Bergamon jokatu genuen munduko txapelketa. Errepideko proba izan zen, eta uste dut 70 kilometro egin behar izan genituela. Azken bueltak herrian bertan ziren, zirkuito batean, eta gune batean lurra adokinatua zen, Kultur Etxe aurrekoa modukoa. Reynolds taldeko medikua gurekin zegoen eta azken bi bueltak falta zirela adierazteko keinua egin zidan. 15 bat gindoazen lasterketa buruko tropelean, eta ezin nuen sinistu ere egin. Aurrez esana ziguten lasai egoteko, sekula Espainiako selekzioko inork ez zuela proba hura amaitu eta parte hartzea lorpen handia zela. Azken bueltan estolda batean sartu nuen gurpila eta erori egin nintzen. Sorbalda bere lekutik irten zitzaidan, baina nola edo hala, berriz jarri nintzen bizikletan eta lortu nuen txapelketa amaitzea. Espainiako selekzioko lehenengoa izan nintzen hori lortzen.

Polizia batek esaten zidan geratzeko, ambulanzia bidean zela, baina helmugako marra pasatu arte ez nintzen geratu. Gogorra nintzen, eta oso burugogorra. Gero sartu zidaten sorbalda bere lekuan, eta kurioa izan zen bueltako hegaldia hartzean gertatu zitzaidana: pilotoari txirrindularitza gustatzen zitzaion eta hegazkinean sartzean, gure poltsa ikustean, konturatu zen selekzioko neskak ginela. Lasterketa ikusi zuen, eta bazekien bat erori egin zela. Azafata bat bidali zuen erori zen neskaren bila, eta pilotoaren ondoan eseri ninduten. Etxerako bidaiak hegazkineko kabinan egin nuen. Oso oroitzapen onak ditut. Abraham Olanok ere hartu zuen parte munduko txapelketan urte hartan, eta zilarrezko domina eskuratu zuen pistan. Gerora bere emazte izango zena ere nire taldean zegoen, Karmele. Hango argazki guztiak 83ko uholdeetan hondatu zitzaizkidan, eta poltsa bat da ordutik gordetzen dudan objektu bakarra. Pena daukat, baina oroimenean ditut irudi guztiak.



*"Sorbalda bere lekutik irten zitzaidan,  
baina nola edo hala, berriz jarri nintzen  
bizikleta gainean eta  
lortu nuen munduko txapelketa  
amaitzea. Espainiako selekzioko lehenengoa  
izan nintzen proba amaitzen"*

**Sorbalda bere lekuan jarri, eta jarraitu zenuen txirrindularitzan, baina beste eroriko bat izan zenuen ondoren.**

Bai, munduko txapelketa jokatu eta pare bat hilabetera Espainiako txapelketan hartu nuen parte, Valentzian. Joane Somarriba eta ni ginen txapelketa irabazteko favorito nagusiak, baina nik uste neuk nituela aukera gehiago. Sorbalda ez neukan orandik %100ean oraindik, baina lasterketa buruan nindoan nagusiekin. Ni oraindik jubenetan lehiatzen nintzen, eta afizionatuetan ari zirenekin nindoan aurreko taldean. Portu bat jaisten beste txirrindulari batek nire gurgila ukitu zuen eta sekulakoa hartu nuen. Erori nintzen momentuan konturatu nintzen zerbeit puskatu nuela mokorrean. Saiatu nintzen zutik jartzen, baina medikuak berehala esan zuen mokorra edo pelbia puskatuta nituela. Anbulantzian ekarri ninduten Donostiako ospitalera. Sekulako minez egin nuen bidai hura, errepideko zulo guztiak igartzen nituen. Azkenean, pelbisa eta koxisa apurtu nituen. Hiru hilabete egin nituen ohean, baina haustura ez zen ondo sendatu eta konplikazioak agertzen hasi ziren. Azkenean ebakuntza egin behar izan zidaten. Joane Somarribak irabazi zuen txapelketa.

**Sendatu ostean, berriz itzultzea erabaki zenuen.**

Bai, ez neukan txirrindularitza lagatzeko asmorik, baina konturatu nintzen ezin nuela. Gerri aldean mina sentitzen nuen, eta ez nengoen eroso bizikleta gainean. Denek esaten zidaten ondo ikusten nindutela, portuak indarrez eta gogor igotzen nituen, baina min neukan. Azkenean 20 bat urterekin gaixotasun degeneratibo bat diagnostikatu zidaten: espondilitis ankilosatzaila. Genetikoa da, lau neba-arrebetatik bik daukagu, eta badirudi jaiotzetik daukadala, baina nik ordura arte ez nuen ezer igarri. Nik uste hiru hilabetez ohean egoteak eragin zidala. Bizkarrezurreko bertebra fusionatu egiten dira, eta niri lehenengo biak itsatsi zitzaizkidan. Hori izan zen txirrindularitza erabat lagatzeko arrazoia. Hasieran joaten nintzen lasterketak ikustera, baina ez nuen ondo pasatzen, eta guztiz aldendu nintzen. Bizikletako postura ez zen egokia gaixotasun horrentzat, eta igerian egitea aholkatu zidaten.

**Eta, gaur egun zer moduz zaude?**

Ondo nago. Igerian egiten dut, eta luzaketak, egunero. Inbertsio tabla bat daukat etxean eta

*"Nire jarraitzaile handiena izan zen aita. Poz handia ematen zion ni lasterketetan ikusteak, eta irabazten banuen, are gehiago"*



han zintzilikatzen naiz buruz behera bertebra guztiak soltatzeko. Horrez gain, botika natural asko hartzen ditut, eta reumatologoarengana joaten naiz tarteka osasun azterketak egitera. Bera ere harrিতта dago nirekin. Mendira joatea eta ibiltzea ere gustatzen zait. Eta gaur egun ere, lehiakorra eta burugogorra naiz! Ez zait gustatzen atzean geratzea, eta dena ematen dut. Fisikoki oso ondo nago; nik uste dut umetan bizikletan ibili izanak laguntzen didala forma fisikoari eusten. Txirringularitza gogorra da, eta guk ere entrenamendu gogorrek egiten genituen. Neguan ez genuen bizikleta hartzen, eta mendira joatea izaten zen gure entrenamendua. Karakatera joaten ginen, eta batzuetan, San Pedrorra gero. Nire buruan ez da sartzen ezin dudala esatea.

### **Zure aitak hasieran ez zuen nahi zu txirringulari izatea, baina gerora, nola bizi izan zuen?**

Nire jarraitzaile handiena izan zen aita. Poz handia ematen zion ni lasterketetan ikusteak, eta irabazten banuen, are gehiago. 80 bat trofeo irabazi nituen urte haietan!. Gehienak klubera eraman nituen, eta ni gutxi batzuekin geratu naiz. Askok inplikatu zen aita nirekin eta baita Lagun Taldean ere. Hasierako urteetako bizikleta klubean laga zidaten, baina gero aitak erosi zidan bizikleta ere. Lasterketa guztietara etortzen zen, eta hasi aurretik zirkuitoa aztertzen zuen. Bazekien erorikoak non egongo ziren, eta han jartzen zen, partaideei laguntzeko. Lagun Taldeko txirringulari guztiak jaso ditu gure aitak lurretik. Lagun Taldea gaur egun ez dut ezagutzen, baina nire garaian familia modukoa zen. Gurasoak tupperrarekin joaten ziren, eta lasterketen ostean elkarrekin bazkaltzen genuen. Alberto Zelaia ibili zen nirekin taldean, eta haren gurasoekin sekulako harremana egin genuen. Ni lesionatuta ohean egon nintzenez taldekide guztiak pasatu ziren etxetik bisitan. Nire urterik onenak izan ziren txirringularitzan ibili nintzenekoak. Gaur egun oraindik sekulako harremana daukat Alberto Zelaiarekin eta Eibarko Carlos Patiñorekin. Hura zaharragoa da, baina elkarrekin entrenatzen ginen. Maltzagaraino laguntzen nion askotan, eta iluntzen ari zela ikusten bazuen bueltan laguntzen zidan berak Sigmaraino. Kiniela egiten dugu oraindik elkarrekin, eta tarteka batzen gara orduko anekdotak gogoratzeko.

### **Horietako anekdotaren batzuk kontatuko al dizkiguzu?**

Askok ditugu! Autobusez joaten ginen lasterketetara denok batera, eta gero han aldatzen ginen denok arropaz, neskak aurrean eta mutilak atzean. Nire aita eta beste entrenatzaileak jartzen ziren erdian elkar ez ikusteko, baina mutilen bat beti hasten zen kantzontziloak eskuan zituela saltoka. Barre pila egiten genuen. Beste behin gogoratzen naiz Debatik etxera gentozela bizikleta hondatu zitzaidala eta Iosu Artetxek bultzaka ekarri ninduela Elgoibarreraino. Adolfo Alkorta entrenatzaileaz ere oso oroitzapen onak ditut: donutsak partitzen ibiltzen zen furgoneta txuri zahar batekin, eta behin furgoneta hartan eraman ninduen Salouraino, Espainiako Selektzioaren kontzentrazio batera.

Nire lehenengo lasterketa Azkoitian irabazi nuen, eta mutilekin sailkapen orokorrean hirugarren egin nuen. Mutilekin entrenatzen nintzen asko. Gogoratzen dut baita ere 84ko Gipuzkoako Txapelketa barizelaz gaixo egon ostean irabazi nuela. Bi astez egon nintzen etxetik irten gabe, bizikleta estatiko batean entrenatzen. Argazkietan ikusten zaizkit granoen markak!. Ez ziren urte asko izan, baina dena eman nion txirringularitzari garai hartan. Nire adinekoak Guass diskoteka garaikoak dira, eta nik ez nuen Guass apenas zapaldu. Asteburuetan ez nintzen irteten lasterketak neuzkalako edo entrenatu egin behar nuelako, eta garai batean kuadrillarik gabe geratu nintzen. Txirringularitza laga ostean nire ahizpa eta bere lagunekin irteten hasi nintzen. Parrandak eta txirringularitza ez ziren bateragarriak.

### **Gaur egun nola ikusten duzu txirringularitza?**

Pandemia garaian hartu nuen berriz bizikleta, eta hasi nintzen errepidean ibiltzen Ondarroa ingururaino, baina beldurra hartu diot errepideari. Umea nintzenez auto gutxiago egongo zen edo ez nintzen arriskuaz kontziente, baina orain sekulako beldurra ematen dit. Gogoratzen naiz zelako abiaduran jaisten ginen San Pedrotik; orain ezingo nuke. Nik ez dut seme-alabarik eduki, baina eduki izan banitu, ez nieke utziko errepidean ibiltzen. Ilobak badituz eta, bat gainera, nire modukoa da. Oso ona da kiroletan, baina esaten diot ahizpari ez lagatzeko txirringularitzan izena ematen.

## Hasi dituzte santa eskerako prestaketak



Otsailaren 3a izango dute santa eskerako eguna Etxegina taldekoek Elgoibarren, bai eta Mendaroko taldekoek ere, eta biharamunean, otsailaren 4an, irtengo dira kantura eta eskera Elgoibarko Izarraren taldekoak, duela hogeita hamar urte hasitako tradizioari jarraiki. Batzuek eta besteek hasi dituzte prestaketa lanak. Elgoibarren, koruetan

parte hartzeko izena emateko epea zabaldua du Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak, eta Etxeginakoek ere zehaztu dituzte entsegu egunak. Jarraian duzue orain arte bildutako informazio guztia. Haez gain, baina, eskolameek ere ospatuko dute santa eskea, bai Elgoibarren eta baita Mendaron ere. Datorren asteko alean emango dugu horren berri.

### MENDAROKO SANTA ESKEA

Otsailaren 3an egingo dute santa eskea, Mendaron. Ohi legez, 08:30ean batuko dira santa eskekoak udaletxeko plazan, hiru talde egin eta kantura irteteko. Sahatzu mendira abiatuko dira batzuk, Aranerrekarra beste batzuk, eta Mendarozabalera hirugarren taldekoak. 15:00ak aldera arte arituko dira eskean hiru taldeak, eta ondoren, elkarrekin bazkalduko dute Aizpe elkartearen.

### ETXEGIÑA TALDEKOEN SANTA ESKEA

Otsailaren 3an irtengo dira Etxegiña taldekoak ere. Urtero bezala, Bolatokian elkartuko dira, 09:00etan, eta handik abiatuko dira kantura. Entsegu egunak ere zehaztu dituzte. Kultur Etxeko sotoan egingo dituzte entseguak urtarrilaren 30ean eta otsailaren 1ean, 20:00etatik 21:00etara bitartean.

### ELGOIBARKO IZARRAREN SANTA ESKEA

Elgoibarko Izarrak 1994an berreskuratu

zuen baserriz baserri kantuan eta eskean jarduteko ohitura zaharra. Beraz, 30. urteurrena izango dute aurtengoa. Ohitura duten legez, Santa Ageda bezpera egunean, otsailaren 4an, arituko dira koplak kantari Elgoibarko baserrietan. Bi plan prestatu dituzte aurten ere. Bata, helduena: 08:30ean elkartuko dira Kalegoen plazan. Bi taldetan banatu eta 15:00ak arte jardungo dira kantuan eta eskean baserriz-baserri. Bestea, Atxutxiamaikarena: 10:00etan elkartuko dira Azkueko ermitan, eta 15:00ak arte jardungo dira auzoko baserrietan kantuan eta eskean. Hiru taldeak bazkaritarako elkartuko dira gero. Elgoibarko Izarraren koruetan parte hartzeko azken eguna urtarrilaren 29a izango da. Izena emateko 943 741 626 telefono zenbakira deitu behar da edota [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus) helbidera idatzi, bai eta bulegotik bertatik pasatu ere, nahiago izanez gero. Atxutxiamaikaren taldean izena emateko: [elgoibarkoizarra.eus](http://elgoibarkoizarra.eus).



## 'A flor de piel' poesia liburuia argitaratu du Telmo Fernandezek, bere bigarrena



Umetako ametsa bete zuen Telmo Fernandezek duela hiru urte, 22 urterekin: poesia liburu bat argitaratzea. 'Cada sitio' izena eman zion bere estreinako lanari, eta Cuadranta argitaletxearekin argitaratu zuen, nahiz formato digitalean eskuratzeko aukera ere eman zuen. Eta orain, beste lan batekin dator. *A flor de piel* poesia liburuia argitaratu du asteon, eta datozen egunetan iritsiko da liburu dendetara. Hala ere, Internetez eskuratzeko aukera ere izango dela aurreratu du idazleak berak.

Beste norabait bizitzera doan gazte baten bizipenak biltzen ditu poemetan Fernandezek: "Herri handi batera aldatzeko, hazi den herria atzean uzten duen gazte baten bizipenak

dira. Gaueko ordu txikietan soilik ematen diren xuxurlazko aitortpenen formako poemak. Galtzeari buruzko istorio bat; bihotz hautsiak, begi-kliskada pare batean, ezinbesteko pertsonak bihurtzen dira, eta, batez ere, hazi egiten dira", dio Telmo Fernandezek bere liburuaz.

### Astelehenaz geroztik, goizez ere zabaltzen dute Mendaroko liburutegia



Arratsaldez bakarrik zabaldu izan dute orain arte Mendaroko udal liburutegia, baina urtarrilaren 15az geroztik, ordutegi zabalagoa du. Orain arte, 17:30ean zabaldu eta 20:00etan ixten zuten, baina ordutegi berrian, goizez, 10:30ean zabalduko dute, 13:00ak arte, eta arratsaldez, 16:30etik 19:30ak arte egongo da zabalik. Iñaki Goitia da liburutegia, eta honako hauek dira harekin harremanetan jartzeko bideak: Telefonoz, 943 033 291 eta posta elektronikoz, [liburutegi@mendaro.eus](mailto:liburutegi@mendaro.eus).

### Lumiere Minutua lehiaketa antolatu dute Mendaron, biharko

Tailerra eta lehiaketa formatoa izango du biharko Mendaron antolatu duten Lumiere Minutuak. Hasteko, Limbus Filmakeko zuzendari eta ekoizlea den Iban del Campok ordubeteko sarrera-hitzaldi bat egingo du Uztargi tabernan, zinemagintzaren historiaz, eta ondoren, bi orduko tartea izango dute parte-hartzaileek toma bakarrean minutu bateko bideoa grabatzeko. Zinemaren aitzindari izan ziren Lumiere anaiek

egiten zuten teknika bera erabiliko dute grabatzeko, beraz, parte-hartzaileek, eta gaia librea izango dute.

Gero, grabazio guztiak proiektatuko dituzte Uztargin bertan, eta taldean komentatuko dituzte. 10:00etan izango da hitzaldia, eta 14:00ak aldera, mokadutxoia egingo dute, Uztargi tabernak eta Galle-tiak gozotegiak eskainita.

## Idazlan lehiaketa jarri du abian Elgoibarko Udalak, ikasleek euskaraz idazteko trebetasuna hartzeko



Idazlan lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak 8 eta 18 urte bitarteko haur eta nerabeentzat. Adinka, sail ezberdinak sortu dituzte: A taldea (LH3-LH4), B taldea (LH5-LH6), C taldea (DBH1 eta DBH2), D taldea (DBH3-DBH4) eta E taldea (Batxilergoa eta Erdi Mailako Lanbide Heziketa). Idazteko gaia librea izango da, baina lehiaketara aurkezten diren lanak aurrez beste inon argitaratu eta saritu gabeak izan behar dira. A4 neurrian aurkeztu behar dira idazlanak, alde bakarretik idatzita eta ordenagailuz, salbu A mailan, horiek eskuz idatzita ere entregatu ahal izango dituztelako. Parte-hartzaileek ikastetxean bertan entregatu beharko dituzte beren lanen hiru kopia, martxoaren 11 baino lehen.

Elgoibartik kanpoko ikastetxeetan ikasten ari diren ikasleek, berriz, zuzenean entregatu beharko dituzte lanak HAZen (Santa Ana kalea, 2) goizeko ordutegian, 07:30etik 15:30era. Sari bezala, 50 eta 120 euro bitarteko bonoak banatuko ditu Udalak, herriko dendetan erabiltzeko. A eta B taldekoen artean 2 sari banatuko dituzte, ikastetxeko eta maila bakoitzeko. C eta D mailetako talde bakoitzeko lau lanik onenek jasoko dute saria, eta E taldekoen artean, azkenik, bi sari banatuko dituzte. Epaimahaiak saridunak aukeratu ostean, sarien banaketa eguna, lekua eta ordua behar bezala jakinaraziko zaie irabazle guztiei.

### 'Azken galdera amari' liburuaren aurkezpena, Elgoibarren, hilaren 25ean

Benetako gertaera baten oinarritutako ipuina da *Azken galdera amari* eta 2 urte pasatxoko mutiko baten istorio gogorra da abiapuntua, Ekainena, idazlearen semearena. Minbiziaz hil zitzaion emaztea Manex Beristaini, eta bikotekidea galtzearen dolua eta ama galdu duen semearen minaren dolua bizi ditu. Dolu prozesu horretan idatzi zuen liburua, eta aitortu du oso lagungarri izan zitzaiola gertatutakoari hitza jartzea, marraztea, jolastea eta idaztea. "Hustutze emozional bat izan dela sentitzen dut orain. Bideari kontzientzia jartzeko modu bat. Egindako lanaren sari txiki bat. Eta batez ere, ipuin honek egin dezakeen bideak ilusioa pizten dit. Konturatu naizelako, jende askorentzat ispilu lagungarria izan garela". Gaixoldiaz eta heriotzaz



mintzo da liburua. Hasi gaixoa diagnostikatzeak suposatzen duen danbatekoaz, albistearen ondoriozko denbora gelditzeaz, gaixoaren ahultze etengabeaz, bikote izatetik zaintzaile izatera igarotzeko pausoez, heriotzaren atariko beldurrez, galerak dakarren minaz, haurrei gertaera den bezala adierazteko ezintasunez... Kultur Etxeko hitzaldi-gelan izango da aurkezpena, 18:00etan.

## Jai mexikarra egin dute 'Auzoko' egitasmokoek

Elgoibarren bizi diren eta *Auzoko* egitasmoan diharduten bi mexikarren laguntzarekin, jai mexikarra egin zuten joan zen zapatuan Elgoibarren. Elgoibarko hizkuntza aniztasuna aitortu, herritarron arteko harremanak sustatu eta kohesio eta komunikaziorako hizkuntza gisa euskara erdigunean jartzen du *Auzokok*, eta Elgoibarren, Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak eta Udalak kudeatzen dute egitasmoa.

Jaia zapatuan izan zen, baina prestaketak abenduaren 16an hasi zituzten, piñatak egiteko tailerrarekin. Arrakasta handia izan zuen tailer hark eta familia batzuk kanpoan ere gelditu ziren, ludotekan gehienez 17 familiarentzako lekua zegoelako. Piñaten oinarriak egin zituzten orduan, eta joan den zapatu goizean osatu zituzten, Kultur



Etxeko sotoan egin zuten ikastaroaren bigarren zatian. Hamalau piñata sortu zituzten guztien artean. Eskulanak amaituta hasi zuten jaia. *Auzoko* egitasmoko kide mexikarrek egindako hiru piñata zabaldu zituzten umeek eta gurasoek makilkadaka, abesti mexikar tradizional bat kantatzen zuten bitartean. Piñata barruan zeuden goxokiak batu ostean, Mexikoko gastronomiako jakiak probatzeko aukera izan zuten jaira batutako 70 bat lagunek.



## Hasi dute Auresku Txapelketa, Legazpin, eta Duna Santos eta Haizea Luluaga elgoibartarrak lehiatu dira bertan

Zapatuan hasi zuten Legazpin Auresku Txapelketako liga, eta bi elgoibartarrek parte hartu zuten bertan, Errenteria, Zizurkil, Legazpi, Lezo, Aduna, Amasa-Villabona, Tolosa, Andoain, Pasai Donibane, Asteasu eta Astigarragakoekin batera: Duna Santosek D sailean (14-15 urtekoak) eta Haizea Luluagak B sailean (11-13 urte bitartekoak). Arduradunen esanetan, gustura eta txukun aritu ziren bi dantzari elgoibartarrak. Hurrengo saioa Amasa-Villabonan izango da, urtarrilaren 28an eta han ere bi elgoibartar lehiatuko dira: Duna Santos eta Uxue Cabrera. Elgoibarko Auresku Txapelketa, berriz, martxoaren 10ean jokatuko dute, Herriko Antzokian

## 'Todas las hijas' antzezlan, gaur

Bost emakumek emakume aske eta independente izaten lagundu dieten bizitzako pasarteak kontatuko dituzte *Todas las hijas* antzezlanean. Herriko Antzokian ikusteko aukera izango da, urtarrilaren 19an, 19:00etan, eta sarrerak salgai daude [herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus) webgunean, eta egunean bertan lehiatilan ere izango dira, gelditzen badira (18:15etik aurrera).



## Gaur jokatuko dituzte San Anton Pilota Txapelketako hiru finalak

Afizionatu mailako pilotari puntakoenak ikusteko aukera izango da San Anton Pilota Txapelketako finaletan, gaur iluntzean, Elgoibar Ikastolako frontoian. 21:30ean hasiko da pilota jaialdia. Joan den barikuan jokatu zituzten Lagunak Pilota Eskolak antolatzen dituen txapelketako bigarren finalerdiak. Horietan Leire Garaik izan zen finalerako txartela lortzen lehena, Maddalen Etxegarairi 22-12 irabazita emakumeen lau t'erdiko txapelketan. Honenbestez, Etxegarairi pilotari oñatiarrak ezingo du ia, txapelketaren estreinako aldiaren eskuratu zuen garaipena errepikatu. Leire Garaik Goiuri Zabaleta leitzarria izango du aurkari final handian.

Gizonezkoieidagokionez, promesen finalean, Ibarluzeak eta Cansecok Apezetxearen eta Landaren aurka jokatuko dute finala. Apezetxeak eta Landak 22-17 irabazi zieten Irribarriari eta Apeztegiari joan zen jokatutako finalerdian. Nagusien mailan, Javier Oskoz (Lanz, 2001) nafarrak eta Markel Lizeaga hernaniarrak osatutako bikoteak Josu Igoa eta Antton Apezetxea nafarren aurka jokatuko dute. Oskozek eta Lizeagak Amianori eta Lozari 22-19 irabazita lortu zuten finalerako sailkatzea. Oberena taldeko Josu Igoa aurrelariak 2022ko San Anton txapelketa irabazi zuen gaur egun profesionaletan dabilen Aaron Arbizurekin bikotea



osatuz. Igoa bera ere Baiko Pilota enpresaren radarpean dago. Barikuan Apezetxea goizuetarra izango du lagun atzeko koadroetan. Iazko finalera ere heldu zen Apezetxea, baina 22-20 galdu zuen Ander Muruarekin batera Iñaki Elolaren eta Ekain Lizeagaren aurkako finalean. Txapelketak orain arte izan dituen 31 edizioetan goi mailako pilotariak igaro dira Elgoibartik, horietako asko profesionaletara igaro aurretik.

### C.D. Elgoibarreko gaztetxoak Euskadiko eta Gipuzkoako selekzioen deialdian



Euskadiko eta Gipuzkoako selekzioekin aritzeko deia jaso dute C.D. Elgoibarko zenbait jokalariek: Laia Duartek eta Teo Galdonak Euskadiko selekzioarena eta Nahia Lopezek Gipuzkoakoarena. Horrez gain, harrobiko lau jokalariek deitu ditu Realak, teknifikazio saioetan aritzeko: Infantil Txiki taldean diharduten Unai Aizpurua eta Jon Conde, batetik; eta, alebinetan diharduten Jakes Gurrutxaga eta Teo Galdona, bestetik.

### Mintxeta Xake Txapelketako finalak, domekan

Mintxeta Xake Txapelketaren hirugarren edizioa itxiko duten partidak jokatuko dituzte domekan, Mintxetako tabernan: Ligako eta Kopako finalak, hain zuzen ere. Ligakoan Iker Ruiz soraluzearra eta

Markel Kerexeta elgoibartarra ailegatu dira finalera, eta 10:00etan hasiko dute azken partida. Ondoren, Kopako finalean, Andres Perez azpeltiarra eta Lander Agirregomezkorta arituko dira elkarren aurka.

## Zumaiatik Zarautzera mendi irteera, domekan



**K**ostaldekoko paisaietan barrena ibiliko dira Morkaikok eta herriko ikastetxeetako gurasoek elkarlanean antolatzen duten urteko lehen mendi irteeran, domekan, urtarrilaren 21ean. Elgoibarko geltokian 09:20ko trenea hartu eta Zumaiara joango dira, ibilaldiari handik ekiteko. Santiagoko hondartza albotik Getaria eta Zarautz alderako bidegurutzera hartuko dute. Azkar berotuko dituzte giharrak eta hatsa, ibilbidearen lehen zatian gainditu beharko baitituzte ibilbideko aldats gogorrenak. Behin gaina hartuta, baina, ibilbide guztia mahasti artean egingo dute, Kantauri itsasoa bistan dutela hainbat unetan. Igande goiz-pasa eder bat egiteko ibilbide lasaia dela esan dute antolatzaileek, "luzetxoa izan arren [9 bat kilometroko], ez baita zaila, lasai hartuta edonork egitekoa baizik". Irteera hauetan ohikoa duten moduan, bazkalordurako Elgoibarren egotea da

asmoa. Itzuli ere trenez itzuliko dira Zumaiatik Elgoibarrera.

### Sagardotegira irteera, otsailaren 17an

Sagardotegia eta mendi irteera uztartzen dituen urteroko plana prestatu dute Morkaikok eta Eibarko Klub Deportibok otsailaren 17rako. Elgoibartik Ataunera joango dira autobusez, 8:15ean. Goiz partean Ataun eta Zalbibia mendiz batuko dituen irteera egingo dute, bidean Arastortz (827 m.) mendira igota. Zaldibian zain izango dute autobusa, eta arropaz aldatu ostean joango dira bazkaltzera Alzaga sagardotegira. Otsailaren 8a da izena emateko azken eguna, eta online egin beharko da izenematea *morkaiko.eus* webgunean. Bazkideentzako prezioa 55 eurokoa da eta 65 eurokoa Morkaikoko bazkide ez direnentzako.

### Sanloko hamasei jokalarik jaso dute Gipuzkoako selekzioaren deia

Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak teknifikazio saio bat antolatu du domekarako eta infantil, kadete eta jubenil mailetakoko neska zein mutilen selekzioek hartuko dute parte. Ordezkaritza zabala izango du Sanlok, kategoria desberdinetako selekzioen deia jaso baitute hamasei jokalarik: Maria Amaro eta Carmen Guerrero (infantil neskek), Maialen Azkoaga eta Ihart Rojo (kadete neskek), Ander Aranbarri, Xabat Ibirriaga, Elur Esnaola, Ekain Kapanaga, Gorka Sota, Aimar Gurrutxaga eta Lander Andres (kadete mutilak), Eider Plaza eta Maialen Alonso (jubenil neskek) eta Iker Urbieta, Beñat Iriondo eta Jon Ruiz (jubenil mutilak).



**LANA**

**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulu soziosanitarioa daukat, eta urteetako eskarmentua. **600 082 234**

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka eta asteburuetan. **643 505 827**

Goizetan lan egiteko prest. **641 755 672**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Esperientzia eta erizain titulua ditut. **643 505 662**

Baso inguruak zaintzen egingo nuke lan, sastrakak kendu, garbitu, pinuak moztu edo landatu... **641 912 286**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia. Orduka eta asteburuetan. Ospitalean zaintza lanak egiteko ere prest. **644 655 354**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. **632 708 954**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia. Orduka, asteburuetan edo ospitalean gauak pasatzeko prest nago. **644 943 297**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka, asteburuetan edo ospitalean. Esperientzia eta titulua daukat. **632 229 972**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut. Orduka edo etxeko langile moduan lan egiteko prest. **642 577 823**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo etxeko langile moduan. Titulua daukat eta esperientzia ere bai. Erreferentzia onak. **614 114 360**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. **663 102 472**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat. **611 215 176**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Titulu soziosanitarioa eta esperientzia ditut. Gauzez edo orduka egingo nuke lan. **631 212 497**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia. **634 196 236**

**ETXEBIZITZAK**

Bañareseko kanpinean mobilhome-a salgai: 9,20 x 3,70 metrokoa, itxitako portxe handiarekin (10 x 3,50m.) eta 30 m<sup>2</sup> lorategiarekin. 3 logela, bainugela, sukalde ekipatua eta egongela handia. **637 587 811**

**PARTIKULARRAK**

Eskola partikularrak emateko eta umeak zaintzeko prest nago, arratsaldetan. Haur Hezkuntzako ikaslea naiz eta esperientzia daukat umeen aisialdian. Euskalduna. **618 722 998**

  <p><b>ROSA M<sup>ª</sup> PINTADO</b></p> <p><i>Etaldeen Administrazioako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Igogailura sartzeko hainbat eskailera dituen eraikin batean bizi naiz. Jakin nahiko nuke komunitateari goeera-arrapala bat jartzeko eskatu ahal izango niokeen, semearen paseoa-aulkiarekin eskailera horiek igo behar baitituz.</b></p> <p>LPHren azken berrikuntzaren arabera eraikinek irisgarritasuna bermatu behar dute, beraz, jabeakide guztiek dute baimena baldintza horiek behar bezala bete ezean eskatzeko. Zentzu horretan, derrigorrezkoa izango da igogailuei edo kanpoaldearekin lotura errazten duten bestelako gailu mekaniko eta elektronikoei buruzko jarduketak egitea, eta ez da beharrezkoa izango Jabeen Batzarraren alde aurreko adostasunik, dirulaguntza edo laguntza publikoak deskontatu ondoren, zenbatekoa gastu arruntan hamabi hileko arrunta baino handiagoa ez bada. Lege erreforma hori batez ere desgaituengan pentsatuz egin bazen ere, guztiz aplikagarria da zuk azaldukatok kasuan ere. Izan ere, gainera, arrapala aprobetxagarria izango litzateke elbarritasuna izan dezaketean edo behar duten gainerako jabeakideentzat ere.</p> <p><b>Ondorioa: erabakia baliozkotasunez hartu ondoren, kostua jabeakide guztien kontura izango da, baita aurkako botoa eman dutenen kontura ere. Erabaki hori hartzen ez bada, egokitzapen horiek eskatu dituztenek hartuko dute beren gain aipatutako hileko kuotetatik gorako kostua.</b></p> <p><b>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA</b> San Bartolome, 2</p>
---	---

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  688 655 658 bidalita.



**Elaiari,** bere lehen urtebetetzean, San Anton egunean, zorionak. Etxeko guztien partez.



Zorionak, **Elene,** igandean 3 urte beteko dituzulako. Patxo handi bat familiakoen eta bereziki, Malenen partez. Asko maite zaitugu.




Zorionak, **Beñat!** Igandean 6 urte beteko dituzu eta ederki ospatuko dugu! Muxu handi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **Lucia,** etxeko guztien partez.



Zorionak, **Luken, Laia** eta **amama,** beste urte bat betetzeagatik. Etxekoien partez.



Zorion handi-handia gure txapeldunari! Urtetxo zoragarri bat, **Elaia!** Jarrai dezagun elkarrekin gozatzen. Muxu erraldito eta goxo bat aitatxo, amatxo eta familiako denon partetik.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO  
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.  
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



## Zabaldu atea

**BARREN** astekariari, eta egin zaituz harpidedun!

Aspaldi bazabiltza **BARREN** etxeko buzoian jaso nahian edo jaso nahi lukeen beste norbait ezagutzen baldin baduzu, oraintxe duzu aukera. Deitu, idatzi edo etorri bulegora.

**943 744 112**  
barren@elgoibarkoizarra.eus  
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.



## EXPRESS ESKAINTZAK!

### AEG LFR611402B

### ARROPA GARBIGAILUA



499 €



- Karga 10Kg
- 1.400 bira/min
- Higiene programa
- Inverter motorea
- Prosense Teknologia

# MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)  
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

**19 BARIKUA**

**12:30** Antzerkia: 'Todas las hijas'. Erre Produkzioak taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

**21:30** San Anton pilota txapelketa. Ikastolako frontoian.

**20 ZAPATUA**

**10:00 - 14:00** Tailerra: 'Lumiere minutua'. Minutu bateko bideoak sortzeko saioa. Mendaron, Uztargi tabernan.

**11:00** Filatelia Elkartetako Euskal Federazioaren urteko lehen batzarra. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**13:00** Zigilu erakusketaren itxiera ekitaldia. Bildumagile eta laguntzaileei sariak banatuko dizkiete. Altxolatarren Dorretxea filatelia elkarteak antolatuta, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

**21 DOMEKA**

**10:00** Mintxeta Xake Txapelketa: kopa eta ligako finalak. Mintxeta tabernan.

**22 ASTELEHENA**

**11:00** San Bizente Eguneko meza. San Rokeko ermitan. Segidan, salda eta txorizoa banatuko dute.

**24 EGUAZTENA**

**17:00** Elgoibarko Jubilatuen Biltokiko bazkideen urteko batzar orokorra. Jubilatuen Biltokian.

**19:00** Elgoibarko Legealdi Planaren aurkezpena. Aita Agirreko areto nagusian.

**25 EGUENA**

**18:00** 'Azken galdera amari' liburuaren aurkezpena. Almaur elkarteak antolatuta, Elgoibarko Kultur Etxean.

**26 BARIKUA**

**20:00** Mendaroko III. Jazz Eguna. Malwina Masternak abeslariaren kontzertua. Mendaroko San Agustin Kulturgunean. Uztargi tabernak eta Galle-tiak gozotegiak antolatuta, Gararock taldearen laguntzarekin.

**Osasun gida**

RPS233/13

**943 366 377**San Bartolome, 22  
20870 Elgoibar**NATUR HOUSE****Ainara Iriondo Ansola**GIZA EUKADURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA

RPS 203/16

Toribio Etxebarria, 22  
Eibar**677 551 850****fisio&más**Fisioterapia aurreratua eta  
Kirol BerregokitzeaTrenbide kalea, 13  
**943 740 191 / 667 953 698**  
www.fisio-mas.com

RPS 177/19

RPS 271/12

**ainhoa**  
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar

**943 531 953**  
**669 565 745**

RPS 183/12

**Uzuri**  
optika audio

Elgoibar  
**943 740 359**

Deba  
**943 192 192**

**leku**  
eder

hortz klinikak

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar

**943 530 053**

federópticos

**ikus**

RPS 65/07

San Bartolome, 10  
Tel.: 943 743 734



**Zinea**  
**Herriko Antzokian**



**'Sabent' Aquell'**

20, zapatua: 19:00 / 22:15  
21, domeka: 19:00  
22, astelehena: 21:00



**'Doraemon: Novitaren dinosauro berria'**

21, domeka: 16:30



**'Fallen leaves'** (Ongarri zinekluba)

24, eguaztena: 21:00

**2024ko botika ordutegiak:**

09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

**URTARRILA**

19 BARIKUA	■ Ibañez
20 ZAPATUA	Garitaonandia
21 DOMEKA	Garitaonandia
22 ASTELEHENA	Arriola
23 MARTITZENA	■ Fernandez
24 EGUAZTENA	Yudego
25 EGUENA	■ Oruesagasti
26 BARIKUA	Barrenetxea

**2024 urte guztian, gauzez:**

Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)  
943 204 230

■ Fernandez: Herriko Enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142	■ Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638	■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384
---	--	--



**MERKEALDIA**  
**%35eko deskontua**  
etxerako neguko ehungintzan!

**Etorri, bisita gaitzazu!**



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



Jose Ramon Cabrera





## *Estrella Murillo Palacios*

2024ko urtarrilaren 16an hil zen, 98 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## *Tomas Egaña Lizundia*

2024ko urtarrilaren 12an hil zen, 92 urte zituela  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

*Hil dira gure ama asko  
aurretik hil dira aitak  
eta iduri du bakarrik utzi gaituztela,  
badoazela banaka-banaka zaratarik egin barik  
amak eta aitak zarratzen ari direla ateak eta sukaldeak,  
gelak eta korridore luzeak  
eta gu kalean geratu garela  
gehiegi mugitu barik,  
zer egin jakin gabe bezala.*

Etxekoak




XII. URTEURRENA

## *Mari Karmen Gabilondo Etxabe*

2012ko urtarrilaren 19an hil zen, 58 urte zituela.

*Hor ginan trikuharrian bisitan,  
hor zaude zure betikoan, zurean.  
Orain bi mila urteko haien lez  
gogoratzen zaitugu maitasunez.*



Eskertzak eta urteurrenak **943 743 704 / 943 744 112**  
Aita Agirre Kulturunea, 3, 3. ezk - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

*baserriz baserri, kantuan eta eskean, otsailaren 4an*

# SANTA AGEDA BEZPERAN ELGOIBARKO IZARRAREKIN



## Bi plan prestatu ditugu:

1.- **Helduena:** goizeko 08:30ean elkartuko gara Kalegoen plazan.

Bi taldetan banatu eta arratsaldeko 15:00ak arte jardungo dugu kantuan eta eskean.

2.- **Atxutxiamaikarena:** goizeko 10:00etan elkartuko gara Azkueko ermitan,  
eta 15:00ak arte jardungo dugu auzoko baserrietan kantuan eta eskean.

Hiru taldeak bildu eta bazkari baten bueltan emango diogu amaiera egunari.

Urtarilaren 29a izango da koruetan izena emateko azken eguna:

943 741 626 / [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus)

Atxutxiamaikaren taldean izena emateko: [elgoibarkoizarra.eus](http://elgoibarkoizarra.eus) atarian

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:

